

BIZKAIKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA

Sozietatearen izena

Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A.

IFK

A48177752

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1985eko irailaren 30ean eratu zen sozietate anonimo gisa eskritura publiko bidez, eta 1986an hasi zen lanean, honako honek baimena eman ondoren: [288/1985 DEKRETUA, irailaren 24koa, Industriaren Promoziorako eta Birmoldaketarako Elkarrekin Sociedad Parque Tecnológico, S.A.n partaidetza har dezan, baimena emanez.](#)

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Sozietatearen xedea industria-ekimena eta -inbertsioa sustatzea da, goi-mailako teknologiako enpresak ezarri ahal izateko azpiegitura sortuz, hala nola oso eduki berritzaile handiko industria- eta zerbitzu-jarduerak egitea, eta, aldi berean, teknologia eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea unibertsitatearen, teknologia-zentroen eta enpresen artean. Xede horren ildotik, sozietateak zenbait eraikin egin ditu, salduta edo alokairu bidez (erosteko aukera emanda zein eman gabe) ustiatu direnak, eta, aldi berean, enpresak parkean ezartzea sustatu du, teknologia aurreratuen esparruan enpresa-ekimenen premietarako egokiak diren lurak eta azpiegiturak lagaz edo salduz.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

100.659.700 €

Kapital sozialaren osaera

SPRI, S.A.	% 67,26
Bizkaiko Foru Aldundia	% 18,02
Azpiegiturak, S.A.U.	% 11,82
Zamudioko Udala	% 2,62
EHU	% 0,28



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzeko dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

<u>Izena:</u>	<u>Honen proposamenez izendatua:</u>
Juan Ignacio García de Motilola Ubis jauna	SPRI.
Alexander Arriola Lizarriturri jauna	SPRI.
Aitor Urzelai Inza jauna	SPRI.
Estibaliz Hernáez Laviña andrea	SPRI.
Aitor Cobanera Rodríguez jauna	SPRI.
Izaskun Artetxe García andrea	Bizkaiko Foru Aldundia.
Gorka Estebez Mendizabal jauna	Bizkaiko Foru Aldundia.
Imanol Pradales Gil jauna	Bizkaiko Foru Aldundia.
Igotz López Torre jauna	Zamudioko Udala.
Amaia Maseda García andrea	EHU.

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 50,00

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programaturako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	177.370.810 €
Ondare garbia	122.895.323 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	7.090.328 €
Batez besteko langile-kopurua	17

Sozietatearen helbidea

Ibaizabal bidea, 101. eraikina, 48170 Zamudio (Bizkaia)

Webgunea

www.parke.eus/bizkaia